

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

215/2022 Foru Agindua, apirilaren 1ekoa, lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Onestea energia produktu jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko inprimakia

Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituen martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuak aparteko eta aldi baterako hobari bat arautu du petrolio jatorriko energia produktu jakin batzuen preziorako.

Errege lege-dekretu horren arabera, hobariaren kudeaketan laguntzaile izango dira erregaiak eta karburanteak txikizka hornitzeko instalazioen ustiapen eskubideen titulartasuna dutenak, bai eta hobariaren xede diren produktuen azken kontsumitzaileei zuzeneko salmentak egiten dizkieten enpresak ere. Horretarako, publikoarentzako salmenta prezioaren gaineko deskontu bat egin beharko dute, zergak barne, aipatutako lege dekretuan adierazitako baldintzetan egiten den hornidura bakoitzean. Deskontu hori ezarritako hobariaren zenbatekoaren baliokidea izango da.

Errege lege dekretu horrek, halaber, ezartzen duenez hobariaren kudeaketan laguntzaile direnek egin diren hobariak itzultzeko eskatu ahal izango dute, eta, era berean, 2022ko apirilaren 15a baino lehen, konturako aurrerakin bat eskatu ahal izango dute hobariaren gehieneko zenbatekoagatik. Aurrerakin horren gehieneko zenbatekoa, aipatutako errege lege dekretuaren 15. artikulua 4. paragrafoaren arabera, hobari horren helburuaren eremuan sartuta dauden eta, aldi berean, laguntzaile horrek 2021eko ekitaldian saldu dituen produktuen hileko batez besteko bolumenaren ehuneko 90 izango litzateke. Hobarien itzulketak eta horien konturako aurrerakinak ez dira enbargatuko edo konpentsatuko zerga zorrak azkentzeko bide gisa.

Ondorioz, foru agindu honen bidez, laguntzaileen konturako aurrerakina eskatzeko inprimakia onesten da, zeina, aipatutako 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiari baitagokio.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau:

XEDATZEN DUT

Bat. Foru aginduaren xedea.

Foru agindu honen xedea da inprimakia onestea, energia produktu eta gehigarri jakin batzuen publikoarentzako salmenta prezio aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko. Hobari hori Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituen martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren I. tituluko VI. kapituluaren arautzen da eta hobariaren kudeaketan laguntzaile direnek eskatuko dute.

Bi. Hobariaren kudeaketarako laguntzaileak.

Foru agindu honen ondorioetarako, aurreko Bat paragrafoan aipatutako hobariaren kudeaketarako laguntzaileetat hartuko dira erregaiak txikizka hornitzeko instalazioen ustiapen eskubideen titulartasuna dutenak, bai eta hobariaren xede diren produktuen azken kontsumitzaileei zuzeneko salmentak egiten dizkieten enpresak ere, produktu horien hornidura Arabako Lurralde Historikoan egiten denean.

Hiru. Konturako aurrerakinaren eskaera.

1. Aurreko Bi paragrafoan aipatzen diren hobariaren kudeaketarako laguntzaileek zerga administrazioari eskatu ahal izango diote, 2022ko apirilaren 15a baino lehen, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituen martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 17. artikulua 3. paragrafoan aipatzen den konturako aurrerakina.

2. Hobariaren kudeaketarako laguntzaileek aurreko 1. paragrafoan aipatzen den eskaera egin beharko dute 2022ko apirilaren 15a baino lehen. Horretarako, foru agindu honen bidez onesten den inprimakia, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri jarriko dena, bete eta bidali beharko dute.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko martxoaren 31tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 1a

Lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasuneko zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA